

Liburuak

KRITIKA

Ezer gabe hobe.
Itxaro Borda.
Susa. 17 euro.

Helduen literatura
Gema Lasarte



“Ez dugu generorik, ez dugu aberririk”

Itxaro Bordaren nobela batzuk irakurtzerakoan nekeza egiten zait fikzioa eta autobiografia izan daitekeenaren arteko muga bereiztea. Philippe Lejeunek paktu autobiografikoaz hitz egiterakoan, egilea, narratzailea eta pertsonaia bat direla esaten zuen. Käte Hanburgerren esanetan, aldiz, lehen pertsona kontatutako narrazio guztiak fikzio-tik kanpo geratzen dira. Dekonstruziotik edan zuten Jacques Derridak eta Roland Barthesek berriz, autobiografiak fikzioak direla berretsi zuten, izan ere, egileek memoria lagun identitatea eraikitzeari ekiten omen. Gauzak horrela, Itxaro Bordak paratu zigun nobela beltzari dedikaturiko trilogian (*Bakean یتzi arte*, 1994; *Bizi nitzano munduan*, 1996; *Amorezko pena baño*, 1996) eta 2007an berriro ere protagonista berarekin argitaratu zuen *Jalgi hadi plazaran*, Amaia Ezpeldoi detektibe emeak hitza hartzen zuen bakoitzean, Borda zetorkidan gogora. Irakurri berri dudak azken nobela honetan ere gauza bera gertatu zait. “Nik bestelako ikurra asma nezake, geografiari eratzekia goa. Berdea iparraldeko zuhaitzentzat, urdina Bizkaiko itsasoarentzat eta urrea Bardeetako itsasoarentzat” (71. orrialdean). Lurralde horiek maite zituen Amaia Ezpeldoi eta ezagunak genituen dagoneko Bordaren nobelagintzan. Sigmak, azken nobelako protagonistak, dituen ezaugarriak ere lehendik ezagunak ditugulakoan nago. “Lantokian, askara ura milikalapatzera joan nahi zuen astoaren pare nintzen: inadaptatua, gaitzetsia, mandotua” (93. or.).


Eleberri honek diskurtso feministan badu berritik, ordea, protagonista feminismoaz ez ezik lesbianismoaz, transgenderismoaz eta transbestitzeaz mintzo baitzaigu. *Queer* teoriaren defendatzaile gisa agertzen zaigu Sigma: “Eiki, ez dugu eredurik, ez dugu generorik, ez dugu aberririk, aberastasun finko eta gerorik ez dugu, ez gara unibertsalak” (126. or.).

Bestalde, Borda, Joseba Gabilondok ondo esan bezala, ni migratzailea da, batetik bestera etengabe bidaiari dabilen ni migratzailea, eta oraingoan ere Afrikatik Londresera eta Mexikotik Kaliforniara espazioak urratzen ikusiko dugu. Hala eta guztiz, binarismoaren apurketa, genero aniztasuna edota trantsituan dabilen generoen inguruko ekarpenak dira eleberri honetan benetan berritzaile, Judith Butler eta Monique Wittig lagun dituela. Eleberrian behin baino gehiagotan aipatzen dira euren izenak eta ez hori bakarrik, euren liburuak ere zehazten dira: Wittingen *Les guerrillères* eta Butlerren *Precarious Life*, hain zuen ere. Eta hortxe suertatzen zait niri zalantza, diskurtsoen eraikuntzan behin eta berriro Borda baitakusat Sigma eta bere lagunak ikusi beharrean. ■

Sigmund Freuden obra garrantzitsuenetako bat

Psikoanalisiaren aita eta azken mendeetako pentsalari garrantzitsuenetakoa da Sigmund Freud. Horregatik, eta lehenago beste liburu batzuk itzulita bazeuden arren, Gaiak argitaletxeak *Egonezina kulturaren* euskarara ekarri izana –Xabier Insausti eta Jesus Mari Intxauspe itzul-


tzaile– kontuan hartzeko moduko ahalgina da. Liburu honetan atseginaren printzipioaz hitz egin zuen Freud, eta atsegin hori lortu ezin denean gauzatzen den sublimazioaz –artearen, kirolaren, filosofiaren eta abarren bidez–; eta kulturak, Moravia-koaren ustez, badu zerikusia sublimazio horrekin. ■



Egonezina kulturaren.
Sigmund Freud.
Gaiak.
125 orrialde.
18 euro.

Danimarkan girotutako nobela paraleloa

John Gardnerren *Grendel* nobela ariketa bitxia da: *Beowulf* poema epikoari ikuspuntu berria eskaintzen dio egileak, testu hartako pertsonaia gaiztoa –Grendel piztia– protagonista bihurtuz. Noski, ikuspuntua aldatuta, pertsonaia ere aldatu egiten da: *Beowulf* ez bezala, Grendel gaiztoa izateko arrazoia ez dira gorrotoa eta animalia sena, askoz kontu sofistikatuagoak baizik. Gizakien kontra borrokan ari den bitartean, Grendel unibertsoaren zentzuari buruzko gogoetak egingo ditu. Gaztelaniaz argitaratu du Donostiako Meettok argitaletxeak, Jon Bilbaok egindako itzulpenari esker. ■



Grendel.
John Gardner.
Meettok.
212 orrialde.
16,15 euro.